

Foru-erakundeak eta herrietako erakundeak

Lurralde-foruak



Nafarroako Foru Orokorra

Champagne dinastiak Nafarroako tronua eskuratu zuenean (Antso VII.a *Azkarra* hil ondoren), askotan, ez zituen nafarren ohiturak errespetatu. Horregatik, ohitura haiek idatziz jasotzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Foru Zaharra XIII. mendean. Ondoren, beste testu batzuk gehitu zituzten Nafarroako Foru Orokorra osatu arte.

Joan Nuñez de Lararen zigor-liburua

Bizkaiko hiru eskualdeetan ere (lurralde irekian, Enkartzazioetan eta Durangaldean) ohituren arabera zuzentzen ziren. Joan Nuñez de Larak interes handia zuen Bizkaiko zuzenbidean eta lurralde irekiko ohiturak eta usadioak idatziz jaso zituen.





Herrietako foruak

Bizkaiko Jaurerria hiritartzeko prozesua

Bizkaiko Jaurerria berandutxo hiritartu zen Euskal Herriko gainerako lurraldeen aldean. 1290. urtean Durango eta Ermua sortu aurretik bost hiribildu besterik ez zeuden. Gipuzkoak, aldiz, halako bi zituen eta Arabak eta Nafarroak, berriz, halako hiru.

Bizkaiko bost hiribildu horiek Burgostik Jaurerrirako sarbideetan kokatu ziren funtsean: Enkartzazioetatik Balmaseda (1199) eta Lanestosa (1287); Urduñako mendatetik Urduña (1229), eta Gasteizen barrena Otxandio (1254). Bermeo (1236) zen Bizkaiak itsas merkataritzarako zuen sarbide bakarra.

Egoera hura errotik aldatu zen, ordea, Diego Lopez Harokoa jaunarekin. Lopez Harokoak, hegotik iparrerako ardatz berriak Bizkaiko ekonomiari eta bere ondasunei zabaltzen zizkion aukerez jabetuta, Durangoko eta Ermuko hiribilduak sortu zituen barrualdean, eta Bizkaia itsas merkataritzarantz bideratu zuen Plentzia (1299) eta Bilbo (1300) sortuta.

Euskal Herriko hiribilduen sorrera

ARABA	GIPUZKOA	NAFARROA	BIZKAIA
Gesaltza Añana 1140	Donostia 1180	Lizarra 1090	Balmaseda 1199
Biasteri 1164	Hondarribia 1203	Zangoza 1094 eta 1122	Urduña 1229
Gasteiz 1181	Getaria 1209	Tutera 1119	Bermeo 1236
Antoñana 1182	Mutriku 1209	Gares 1122	Otxandio 1254
Bernedo 1182	Zarauz 1237	Iruñeko San Zernin burgua 1129	Lanestosa 1287
Trebiñu 1191ren aurretik	Tolosa 1256	Erriberri 1147	Durango 1290
Argatzon 1191	Ordizia 1256	Elo 1149	Ermua 1290
Labraza 1196	Segura 1256	Urantzia 1176	Plentzia 1299
Bastida 1242	Arrasate 1260	Iruñeko San Zernin burgua 1184	Bilbo 1300
Agurain 1256	Bergara 1268	Iruñeko Nafarrerria 1189	
Kanpezu 1256		Viana 1219	
Korres 1256		Genevilla 1279	
Kontrasta 1256		Irunberri 1298?	
Urizaharra 1256 ing.			
Buradon Gatzaga 1264			
Artziniega 1272			

XI. mende amaieran, Erdi Aroko euskal gizarte landatar tradizionala errotik aldatu zen hiribilduak sortzearen ondorioz.

Lege-esparru berria erabiliz, hiri-gutunena alegia, hiriguneak sortzea bultzatu zen.

Hiribildu horiek sortzeko arrazoi ekonomikoak eta militarrek egon ziren.

Arrazoi ekonomikoak

- Donejakue Bidetik zihoazen erromesen joan-etorriek merkataritzari eta artisautzari lotutako ekonomiaren garapena ekarri zuten. Donejakue Bidean zehar zeuden hiribildu askok eskuratu zuten hiri-gutuna, Lizarrak (1090) eta Zangozak (1094), adibidez. Handik urte batzuetara, 1122an, Garesek lortu zuen gutun hori, Iruñeko San Zernin burgua 1129an, eta Elok, Zangozatik Garesera bidean zegoen bideko bigarren mailako geldilekuak, 1149an.



- Itsasoko merkataritzak ere eragina izan zuen hiribilduak sortzeko garaian.

Antso VI.a *Jakitunak* itsasoko merkataritzari loturiko ekonomia bultzatu nahi izan zuen. Gogo horrek bultzatuta sortu zuen Donostia 1180an. Geroago, Gaztelak itsaso bidezko merkataritza bultzatzen jarraitu zuen, eta, horrela, XIII. mendean Gipuzkoako ia itsasertz osoa hiritartzera heldu zen. Hondarribia (1203), Mutriku eta Getaria (1209) eta Zarautz (1237), besteak beste, garai horretakoak dira.



- Hiribilduen eraketak garrantzi handia izan zuen itsasertza eta barrualdea lotzeko garaian.

XIII. mendearen erdialdean beharrezkoa izan zen barrualdearen eta salgaiak lehorreraten zituzten portuen artean pasabide edo korridoreak egitea, eta, horrela, merkataritza-bide berria sortu zen hegoaldeetik iparraldera, ekialdetik mendebaldera zihoan Donejakue Bide tradizionala alde batera utzita.

Alfontso X.a *Jakitunak* lan ikaragarria egin zuen horretarako. Gasteiztik itsasora zihoazen hiru bide zabaldu zituen: lehena, Deba bailaran zehar, Arrasate eta Bergara herriekin; bigarrenak Agurain, San Adriango tunela eta Oria bailara zeharkatzen zituen lehendik zeuden herriak hartuz, hala nola Segura, Ordizia eta Tolosa; eta hirugarrena, Artziniegan zehar Altubeko gainean barrena, Laredo eta Castro Urdialeserantz hedatzen zen.



Arrazoi militarrik

- Antso VI.a *Jakitunak* ere sistema hori erabili zuen, Gaztelarekiko liskar politikoaren aurrean.

Antso VI.a *Jakitunak* sortutako herri haietako askok erresumaren hego-mendebaldea babestea zuten helburu; besteak beste, Biasterik (1164), San Vicente de la Sonsierrak (1172), Los Arcosek (1175), Gasteizek (1181), Antoñanak eta Bernedok (1182), Trebiñuk (1191ren aurretik), Argantzunek (1191) eta Labrazak (1196).



- Alfontso X.a *Jakitunak* Gaztelaren eta Nafarroaren arteko mugak babesteko erabili zuen sistema hori.

Gogoan izan 1200. urtean Nafarroak Arabako eta Gipuzkoako lurak galdu zituela Gaztelaren aurka. Gaztelak bere muga berria babestu beharko zuen aurrerantzean eta Alfontso X.a *Jakitunak* zegozkion neurriak hartu zituen horretarako, besteak beste, honako hiribildu hauek sortzea hegoaldetik iparraldera: Urizaharra, Kanpezu, Korres, Kontrasta, Segura, Ordizia eta Tolosa.